

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Ezinbestekoa da argi eta garbi definitzea zein harreman mota nahi digun sortu gure enpresa eta bere bezeroen artean.

Harremana pertsonala izan daiteke, bezero bakoitzarekin aurrez-aurre egonez. Aldiz, automatizatu ere izan daiteke, web-aplikazioen edota erantzungailu automatikoen bitartez.

Bezeroekiko harremanaz mintzatzen garenean, esan beharra dago harreman mota ezberdinak sor daitezkeela aldi berean enpresa baten eta merkatu-segmentu baten artean: Laguntza pertsonala, dedikatutako laguntza pertsonala, autozerbitzua...

